

@@@EDIKTUA, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuordearen 2010eko urriaren 29ko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bidez, ezetsi egiten da XXXXXXXXXXXXXXXX-k jarritako gora jotzeko errekurtsua.@@@

Idazpuruan aipatutako ebazpena –2010eko urriaren 29koa– ezin izan zaio XXXXXXXXXXXXXXXX-ri jakinarazi, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari egotz ezin dakizkiokeen arrazoiengatik. Beraz, ediktu hau argitaratuz egiten da jakinarazpena, hala xedatzen baitu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 59.5 artikulua. Ediktu honen bidez, XXXXXXXXXXXXXXXX -ri dei egiten zaio, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Azterlan eta Araubide Juridikoaren Zuzendaritzan ager dadin, aipatutako ebazpena jasotzera (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz). Hamabost egun izango ditu horretarako, ediktu hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera (ordutegia: 8:00-14:30).

XXXXXXXXXXXXX-ri jakinarazpena egiteko ematen da ediktu hau.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urtarrilaren 18a.

Azterlan eta Araubide Juridikoaren zuzendaria,
ANA ISABEL CARO MUÑOZ.